# BESTELAKO XEDAPENAK

## JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 6240

*AGINDUA, 2011ko azaroaren 10ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Sarasua Brown» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.*

Aztertu da «Fundación Sarasua Brown» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko abuztuaren 22an Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Donostiako «Fundación Sarasua Brown» fundazioa inskribatzeko eskaria; aipatu fundazioa Pedro-Juan Brown Smith eta Enrique-Carlos Brown Sarasuak eratu du. Administrazio-espedientean jaso da eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa, bai eta 2011ko irailaren 12an eta 13an aurkeztutako eskritura publikoen kopia baimenduak ere.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2011ko irailaren 28an fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen.

Hirugarrena.– Estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, «Fundación Sarasua Brown» fundazioaren helburua honako hau da: «Agueda Sarasua eta Peter Brown dantzako katedradunek Donostiako Musika eta Dantza kontserbatorioan hogeita hamabost urtez izan zuten egiteko pedagogikotik sortutako hezkuntza- eta arte-lana.

Hezkuntzaren oinarria bi eremutan banatzen da:

1.– Osasuna eta segurtasuna, gizarte-hezkuntzaren oinarri.

2.– Humanismoa, garapen pertsonal eta independente gisa.

Arlo artistikoaren oinarria baleta da, arte eszenikoen sintesia: dantza, musika, antzerkia, pintura, figurinismoa (jantziak), dekorazioa, libretoa, argia... eta gizakia ardatz nagusi».

Laugarrena.– Estatutuen 5. eta 6. artikuluek diotenez, fundazioaren egoitza Donostian (Gipuzkoa) dago (Gurutze Alde 16, 2.a), eta batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Bosgarrena.– Fundazioaren hasierako dotazioa fundatzaileek Donostiako etxebizitza horretarako (Gurutze Alde, 16, 2.a) musutruk egindako ekarpenak osatzen du; guztira, 324.360,27 euro.

Seigarrena– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Patronatuko kideak, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hasieran hauek izango dira (ez dago zehaztuta kargu horiek noiz arteko iraupena izango duten):

– Lehendakaria: Pedro-Juan Brown Smith.

– Idazkaria: Enrique-Carlos Brown Sarasua.

– Bokala: Rosario Rosado Leo.

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez. Lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da Fundazioaren eraketa.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta F-315 erregistro-zenbakiarekin, Donostiako «Fundación Sarasua Brown» erakundearen eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatu horren kideak zazpigarren aurrekarian agertzen dira. Kideok espresuki onartu dituzte euren karguak, EAEko Notarioen Elkargoko Fermín Lizarazu Aramayo notarioaren aurrean (2677 protokolo-zenbakia) –2011ko abuztuaren 18an– emandako eskritura publikoan xedatu bezala.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 10a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.